El 4 de mayo de 1937, a los pocos días de que Gernika quedara consumida por las llamas, **José de Labauria**, hombre fervientemente católico, hizo unas comprometedoras declaraciones ante los micrófonos de Radio Bilbao acusando a los verdaderos culpables de la destrucción de la ciudad simbólica de los vascos y de la que fue elegido democráticamente alcalde:

«... Los fascistas, cometiendo el acto más criminal de la historia, han reducido Gernika a cenizas..., Espantados de su crimen, quieren descargarse de él ante la conciencia del mundo e imputarlo a los rojos. Hay hasta aviadores prisioneros nuestros que han declarado la verdad...»

Pero no sólo hizo estas declaraciones, sino que también las reafirmó en una carta dirigida a un periodista belga. Así, la realidad, que había sido cruelmente manipulada, quedaba desvelada ante toda Europa.

He aquí unos fragmentos de aquella declaración histórica:

«...Como católico, invoco el nombre de Dios y, como vasco, juro por mi patria, Euzkadi, que todo lo que aquí relato es la verdad sobre este triste hecho. Este juramento solemne e histórico podría estar firmado por la sangre de millares de víctimas que la aviación alemana ha causado en mi ciudad, pequeña en extensión, pero que conservaba la tradición más antigua del mundo ... pero Gernika, ahora, no es más que un montón enorme de ruinas, sobre sus cenizas habría que poner este epitafio: 'La civilización germánica ha pasado por aquí'....¡ Cuántas cosas tristes fueron alumbradas por las llamas de Gernika!... ».

Tras firmar la declaración, **José Labauria** se vió obligado a marcharse a Santander para, desde allí, embarcar rumbo al exilio. La Roseré, al otro lado del Bidasoa, fue la

primera etapa del destierro. Pasado algún tiempo, regresó a la península, a Vigo, con esperanza de partir hacia México. Pero el destino continuó deparándole más sufrimientos al que fuera alcalde de Gernika. En tierras gallegas fue detenido y encerrado en la prisión de Pontevedra, siendo, seis meses después, trasladado a la cárcel de Larrinaga, en Bilbo. Su hija **Deunore**, que por entonces apenas contaba 14 años, recuerda aquellos amargos momentos cuando le vio, en el curso del traslado, llegar a la estación bilbaína del Norte:

«... Cuando le vi aparecer con aquella barba, aquella figura, como si fuese, pues eso, un asesino, rompimos todos a llorar, y no os podéis ni imaginar las palabras que nos dijo: 'Ahora estoy tranquilo, al fin estoy en Euzkadi y que sea lo que Dios quiera...' y subió silbando las gradas de la cárcel».



Aita Onaindiarekin berbetan, Gerra garaiko testigantza

Karlos Santisteban

Aita Onaindia izenduraz euskal letren esparruan hain ezaguna dugun Santiago Onaindiarekin berbetan izan gara Larreako komentuan, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena dela aitzakitza harturik, honetaz eta hartaz ihardunez. 1909.eko martxoaren 24ean jaio zen Amoroton, Lauaxetaren adiskidea izan zen eta gerrak bete-betean harrapatu zuen. hainbat lan burutu du euskal literaturaren arloan. Hitz-jarioa berez datorkio abade jator honi.

— Gernikaren 50. urteurrena laster beteko delarik, Gernikan hainbat eta hainbat ospakizun burutuko da, batzordeak sortu dira, teatroa, musika eta edozelako ekitaldi bereziak

izango dira... Ezer entzun al duzu honetaz?

— «Bai, hona etorri dira nire laguntasun eske».

— Eta zer eskatu dizute?

— «Bai, antzerki lanen bat, esate baterako, eta gero baita olerkiak, erderaz 'recitación' esaten dena, 'recitar', holako zerbait. Gero, aldizkari txiki-
ren bat aterateko...».

— Nork eskatu zizun hori?

— «Hor izan ziren sei gazte, bai, sei gazte.».

— Batzordeetakoak?

— «Ez dakit, horiek lehenengo hasi omen ziren, ez dakit batzorde horietan sartuta dauden ala ez».

— Badakizu pelikula bat burutzen ari direla Lauaxetari buruz?

— «Bai, eta horren kontra nago».

— Zer dela eta pelikula horren kontra?

— «Ba, Lauaxeta..., zergatik? Nik asko idatzi dut Lauaxetari buruz, eta gainera izan nintzen gerraren aurretik

Lauaxetaren adiskide. Begoñan ikasle nintzela, 'Euzkadi'n lan egiten zuen, harengana joaten ginen haren laguntzaren bila, eta ni ere bai. Gero bera komisario politiko izan zen eta gure gobernuak bialduta hona eta hara ibiltzen zen. Eta gero hor, berak eroanda, birritan egon nintzen, hiru bider, Bizkargin, meza emotera. Eta gero, gerra denboran, ni kapeilau egon nintzen bertan, Kanpanzarren, eta Elgetan, Ubedan eta hor..., eta hara etortzen zen bera. Hitzaldi politikoak zeuden eta hara etortzen zen hango gudalostea ikusten eta... Eusko Gobernuak bialduta. Eta gero egon nintzen Solluben, bera etorri zen, eta Meñakan ere elkarregaz egon ginen. Azkenengoz Ubedan egon nintzen beragaz, gero egon nintzen hemen, Bizkargi azpian, eta gero Solluben. Franco ere han ikusi genuen, Solluben geundela bera han egon zen, Bizkaigane esaten den tokian».

— Bai?, Franco bera egon zen bertan?

— «Bai, 'han aurkitzen da Franco!' esan zuten, han egon zen, bai. Antza, hor, pelikula horretan, gura dute Gernikako bonbardeoa ipini eta **Lauaxetaren** izenean, baina **Lauaxetak** hori baino gehiago merezi du».

— Laguntasuna eskatu dizute pelikula hori egiteko?

— «Ez, ez, berba egin ez, ezertxo ere ez. Baina horretaz berba egin dugunean hori izan da, beste zerbait dela, Gernikako bonbardeoa eta holako gauzak: 'sensacional'. Han harrapatu zuten eta eraman, Gasteizera. Gure komentuan egon zen gero, han, apirilaren hogeita eta bederatzian, uste dut, ez, hogeita eta zazpian, **Uriarte** han zebilen eta bederatzia han sartuta zeuden. Nazionalak sartuta zeuden Gernikan eta bera konturatu barik harrapatu zuten Santa Maria eleizaren ondok, trantses bati Gernika erakusten zebilen bera eta prantses honek erakutsi bere dokumentazioa eta badaezpada libre utzi zuten, baina **Lauaxeta** harrapatu. Eta handik eraman zuten Gasteizera, eta han eduki zuten apirilaren hogeita eta bederatzitik aurrera, San Juan, hogeita lau edo arte. Ni egon nintzen denbora asko ez dela han eta, ardura daukan gizonak esan zidan kanposantu barruan ezin zutela eduki eta kanpoan gelditu zen, eta berak erakutsi zidan non zegoen gorpua, lehenengo lurra, eta orain Mungian dago...».

— Beraz, handik ekarri zuten.

— «Bai, bere hezurrak ekarri zituzten Mungiara, bai, Aiuntamentuak eta harrera haundia-haundia egin zioten. Gauza asko daukat **Lauaxetaz**, ez dakit zelan hasi... Jaio zen Laukinizen, han jaio eta gero bost-sei urterekin, Mungiara. Baina aita zerekoa zen, Aulestikoa, ama Laukinizekoa. Gero jesuita izateko asmoarekin Loiolara joan zen eta filosofikoak, teologikoak... egiten hasi zen... Idazle ona eta zera zen, pelikula ona eta oso kultura handikoa egiteko gaia da».

— Ikusi beharko dugu pelikula hori, ezta?

— «Bai, bai, ikusi behar. Pelikula dotorea eta holakoa, olerkitsua egiteko da».

— **Lauaxeta** Gasteizen egon zenean, preso, bere azken olerkiak idatzi zituen bertatik, ezta?

— «Bai, nikargitaratu dudana liburuan daude, eta baita **Kortazarren** liburu horretan ere bai. Eta hor nahikoa lan, olerkiak, ez dakit zenbat dagoen, asko ez dira, baina nahikoa bai, eta gero bere kartak, bere testamentua... Eta mutil ona izan zen, gaur badira

hain onak ez direnak!». (Barre egiten du Aita **Onaindiak** hau dioen bitartean).

— **Lauaxeta** ere, nik ez dut esango santua iango zenik, baina jesuitetan egon zen emanda hainbeste urte eta jakituna eta ona ere bazen. Hau bere lanetatik ateratzen da, honako hau barruan daukala, jainko-zaletasuna

"Azkenengoz Ubedan egon nintzen Lanaxetaz"

haundi-haundia. Eta orain hor dabil-tza batzuk jainko-zaletasun hori kendu gura-ta. Eta kritikak egiten direnean dena esan behar da, holako akatsak badagoz, denok ditugu akatsak. Ezin da akatsak kendu eta edertasunak bakarrik ipini, hor ez da zuzentasunarekin jokatzeko».

— Eta beste alde batetik, nolakoa zen **Lauaxeta**? Nazionalista? Nolakoa?

— «Bai, nazionalista on-ona. 'Bizkaitar' esaten zen, abertzalea zen. Beraren abertzaleztuna oso sakona zen, ikusten da bere olerkietan».

— Olerki batetan badio dena eman behar dela askatasunaren alde...

— «Bai, egunotan entzun dugu, telebistatik esanda ere bai, zerean, gure 'Yoldi'k, berak irakurri zuen».

— Bai, Gasteizeko parlamentuan.

— «Parlamentuan, bai».

— Eta zer eritzi duzu horretaz, **Yoldi** bertan agertu eta esan zuenaz?

— «Ondo ba, ondo...».

— Ondo?

— «Bai, bueno, gauza batzu ez daude oso ondo, esate baterako **Benegas** berak ez zuen urten. Entzun, entzun, ez al gaude elkarrizketa gora ta behera, 'dialogoa', idatzi bai, eta mihian erabili ere bai, baina gero ez dugu egiten. Denetatik entzun behar da, abadeok egiten dugunez, aitortegian esate baterako, bakarrik entzun egiten dugu, eta gero kontseiluak eman, eta gero, parkatu. Eta berak ere zergatik ez zuen urten? Baliteke **Madrilgo** gobernuaren lotsa, lotsaria edo... Txarto, txarto egin dute niretzako, eta gero, gure era ere, **Yoldi** egon zen, bera egon zen barruan. Baina besteek, Herri Batasunakoek alde egin zuten. Zergatik? Beren protesta erakusteko? Eta zergatik protesta? Hartu eta aurrera egin behar da. Danok ez al gara familia bate-

koak? Baina ez dakigu familia artean eta, eztabaidak eduki arren, denok gabil-tza zaintzen gure eserlekua, gure postua. Halako gorabehera batzu dira eta haserretu, kalean elkar ikusi eta agurrik esan ere ez».

— Geroxeago hitz egingo dugu berriro honetaz, baina orain, denboran atzera egingo dugu, berriro Gernikara. zu izan zinen han bertan bonbardaketaren egunean, ezta?

— «Bai. Bertan-bertan ez nintzen egon, orduan. Ni zerean nengoen, apirilaren 25ean Domeka zen, igandea zen, eta meza emateko nengoen gertuten nere gauzak, eta orduan halako tiro gogorak izan ziren, Elgetan bertan, egun guztian han egon ginen geure tokian, zaintzen, baina gauerako, iluntzerako, hasi ginen beharantza, Eibarrerantza, eta zera, nazionalak sartu ziren Tolosatik Zaldibarrerantza eta ia harrapatzen gaituzten boltsa batean, baina ihes egin genuen Ermutik, Bolibarretik, Bolibarretik gora eta goizerako horra, Gernika eta Munitibarrera. Eta hau gauez, oinez gainera, eh!, etorri ginen, eta hura aurkitu genuen aurretik bonbardeatu zutela lekua gogor, autobus asko zegoen, jendea ekartzen etorrita. Eta orduan ikusi genuen han giro txarra zegoela gu Gernikarantza gindoezen. Arratsaldean, hemen geundela bazkalostean, zarata ikaragarri bat aditu zen, eta joan ginen gora, Urkuilura, eta han egon ginen begira. Hegazkinak etortzen ziren, buelta batzu eman hortixe eta bota Gernikan bere bobak, bota bere bonbak eta joaten ziren. Honantz ez ziren atrebitzen, etorri bai, pixka bat baina gutxi, Urkiola gainetik ez ziren etorten, etorten ziren Urkiola ostetik, Arrasate aldetik eta Markina aldetik, eta gero, Gernikara itsasotik. Ibiltzen ziren leku batetik bestera eta bota beren bonbak. Jendea hor zebilen, batera eta bestera, eta beren karga bota egiten zuten batez ere Gernikan, inguru guztietan. Gernika sutan eta horretara. Zergatik izan zen hori? Zergatik? Bataloi asko egon zelako? Han ez zegoen batolirrik, banaka batzu egongo ziren, baina besterik ez. Astelehena zen eta hainbat jende hil!... Zail da zenbat izango ziren jakitea... Bideetan ere jende asko hil zen, abioi txikitoak...».

— Ihesi zihoazenak hiltzen zituzten?

— «Bai ihesi zihoazenak, Arteagarraino, haraino ere heldu ziren».

— Garai hartan esaten zuten «gorriek» suntsitu zutela Gernika...

— «Esan ere! Bai, gauean bonbak ere

entzun zirela idatzi zuten, bonba-zaratak, baina geratzen ziren bonbak ziren noski».

— Gaur egun frogatuta dago alemaniarrek egin zutela...

— «Bai, eurak izan ziren. Egon zen gezur hori zabaldua **Francoren** denboretan eta gero, urteetan, bera hil zen arte, denbora guztia ezetz, ezetz, guk erre genuela, baina ez zegoen jenderik horretara. Beste leku batzutan, asturiasdarrak eta santandertarrak, gure **Agirre** horren kexaz zegoen, Madrilgo gobernua beti zegoen hara joateko, Arandara eta, baina eurak etorri ziren hona eta kaltea baino ez zuten egin. Etxeak eta palazioak eta hori, asko aprobetxatu ziren».

— Bai?

— «Bai, nortzuk erre zituzten ba? Eta Bilbon, Bilbon sartu gura zuten. Ez zieten utzi. Eskerrak gure ertzainak eta bste batailoi batzuek geratu zirelako, Bilbo zaintzen! Zubiak eta bota zituzten baina berak, gure **Agirre** aginduta».

— Fabrikak ez suntsitzeagatik halako zenbait arma-fabrika zutik geratu omen zen eta gero **Francoren** gizonak osorik harrapatu zituzten gerra jarraitzeko.

— «Bai, guk aginduta, zainduta geratu ziren horretara, ez genuelako gura Bizkaian, edo Bilbon holako kalterik egin, ez fabriketan ez besteetan».

— Baina besteek hartu zuten probetxua...

— «Ez zuten hainbeste zera, eh! Bilbo utzi genuenean, baliteke holako probetxua ateratzea, baina gure kontura? Ez dakit. Bilbo utzi eta gero, eh! Gero, Laredora joan nintzen eta ondoren Santoñara. Gero etorri ziren italiarrak, kontuz ibili, hemen dabil hainbeste requeté, eta gu ibili ginen leku seguru baten bila, eta joan ginen Duesora, oinez, libre zegoen eta han egon ginen lau edo bost egunetan».

— Zer geratu zen italiarrekin burutu ziren elkarriketekin?

— «Paktua egin zen italiarrekin, **Ajuriagerrak** eta **Artetxek** egin zuten hori. Gu Dueson geundela **Ajuriagerra** etortzen zen hona, eta paktu hori entregatu aurretik egin zen. Baina italiarrak maltzurak ziren, maltzurak, bai. Hor nork euki zuen errua? Nik ez dakit, borondate onaz ibili ziren paktua egiteko, baina ez zen erreza, gu asko ginen, batailoi gogorrak, karguok geneukanok Prantzira joateko zen, baina besteak, gudari soilik ez».

— Bitartean ingeles itsasuntzi bi zegoen portuan zain...

— «Bai, sartu eta bete egin ziren. Ni ez nintzen sartu baina beste batzuek bai».

— Eta Dueson?

— «Lehenengotan paperak gertutzen etorri ziren, baina gero han geundela horretara sei mila baino gehiago ginen han, ateak giltzaz itxi zituzten eta kitto, ezin irten handik!».



“Gernikan ez zegoen batailoiarik, banaka batzuek egongo ziren, besterik ez”

— Jendeak zer esaten zuen, alde egiteko posibilitaterik oraindik baze-goela uste al zuen?

— «Bai, ondiño **Ajuriagerrak** eta italiarrekin berba egin zuten, paktua betetzeko, baina gero hasi ziren handik, abuztuan izan zen gu sartu ginenean, eta gero Santa Teresa egunean, urrian, 14ean, sei abertzale, eta guztietatik, buruak, aukeratuta».

— Komunistak eta?

— «Bai, Izquierda Republicana, komunistak eta horiek. Abertzaleetatik bi hartu zituzten, eta horretera ba, gu barruan geundela, **Ajuriagerrak** irten zuen gauzak konponduko zirelakoan, baina orduan hasi ziren juizioak, epaiketak eta...».

— Gerra galduta, Gernikakoa gertaturik, paktua bete gabe... etsituta al zegoen jendea ala zer sentimendu zegoen orduan?

— «Behin Bilbo galdu genuenean, ez zegoen gogorik, ez. Egin bai, nagusiek esaten zigutena egin bai, baina frenterako eta tirorik botatzeko ez. Buruek ikusi zuten eusko gudariak ez zeukatela gogorik tiro gehiago botatzeko, guk amaitu genuen geurea Bilbo utzi genuenean. Jarraitu bai, ez

ginen hain txarto bizi!, fraide antzera, penitentzia eginez! (barre egingen du maltzurki). Jatekoa? Bueno, txarto-txarto ez, ni Guriezon egon nintzen eta zer-jana eduki genuen beti».

— Frankistek **Aitzola** fusilatu zuten ere, ezaguna al zenuen?

— «Bai, bera hona etortzen zen olerkiak egitera. Gainera, aspaldian zigortua izan zen bere lanetan eta, nire ustez, berak euskerari egin dio holako, zaparrada haundia, gazteen artean eta baita zaharren artean, gero asko idatzi zuen, baina ez zen ondo ikusia».

— Zergatik ba?

— «Ez dakit bat. Ez dakit zergatik baina bada. Beste bat gorantza doanean, haren kontra aritzen dira, bai, etsaiak eta arerioak, **Etxeparek** diño: ‘izterbegiak’».

— **Aritzimuño**, ‘**Aitzol**’, abertzale fina omen zen.

— «Bai, oso abertzale ona zen, horregatik etorri zen. Bera joan egin zen lehengo, gerra sortu zenean, baina aberriak bere lanak eta bere gauzak behar zituela, Baionan sartu eta etorri zen. Niretzat ona izan zen, denentzako, jenio gogorra zeukan, mutilzaharra zen, aurretik ibili ziren bera ezkondu gura eta, gerra denboran, Prantzian eta, gure **Lafitte**, gure **Sota**, gure **Monzon**, baina hor gelditu zen. **Aritzimuño** izan zen gizon jatorra, abertzale zintzo-zintzoa eta eragile handia».

— Hitzaldiak ematen zituen ere.

— «Hori ere, gutxi baino ez dute jaikingo, baina gerraurrean, hor zegoen elite antzeko bat, esate baterako bata zen **Alberto Onaindia**, bestea zen **Aritzimuño**, beste bat **Markiegi**».

— Hau ere fusilatu egin zuten...

— «Bai. Gero egon zen ere **Peru Larrañaga**, hemen Larrean egon zen apaiz. Horiak izan ziren bost edo sei eta herririk-herri ibiltzen ziren, Barakaldo, Sestao eta horretara, hitzaldiak egiten, hitzaldi gogorak. Oso zintzoak ziren. Ondo gertatuta egon zen **Aritzimuño**, gero ere, **Alberto Onaindia** esate baterako, **Larrañaga**. Hau gartzelatik irten, hemen egon eta Ameriketara joan zen, eta laster hil zen. Sorte txarra izan zuten, **Alberto Onaindia** izan ezik, eta horrek ihes egin zuelako, bestela hor afusilatua egongo zen ere».

— Zergatik afusilatzen zituzten hauek, nabarmendu egiten zirelako ala zergatik?

— «Bai, nabarmendu egiten zirelako. **Lauaxetak** esate baterako, zer gaizta-

keria egingo zuen ba?».

— **Lauaxeta** ezaguna al zen?

— «Bai, bai».

— Baina besteen aldean ere bai?

— «Besteen aldean ez zen hain ezaguna izango, baina hor lista bat eginda zegoen, hau, hau eta hau, eta kitto. Horrexegatik, **Ariztimuño**, babilteke, abadeen artean eta ezaguna izatea, baina besteak, **Mola** eta hauen artean ez dut uste. **Lauaxeta** jesuitekin ibili zen eta gero zenbait urte ibili zen, gutxi baino ez. Ibiltzen zen hitzaldiak ematen eta, abertzaleen artean eta, baina hitzaldi batzu egin arren ez zen holako ezaguna».

"Asturiasdarrak eta santander-tarrak... etorri ziren hona eta kaltea baino ez zuten egin... asko aprobetxatu ziren..."

— Espainia aldean **Lorca** afusilatu zuten ere, eta apolitikoa omen zen...


— «Bai, baina zera zen, ezkertiarra, eta horregatik afusilatu zuten. Gero **Lauaxetak**, idatzi bai, idatzi zuen, hitzaldiak egin ere, baina afusilatzeke bste?».

— Apaiz eta fraideen artean zer giro zegoen?, afusilatu egiten zituzten eta hala ere eliza ofiziala **Francoren** alde zegoen.

— «Eliza lo zegoen. Hemengo gotzaia, **Mateo Mujika**, hara eta hona erabili zuten, gogor. Bera ere horretara ibili zen, gaur ezkerrera eta bihar eskuinera, karlista zen bera, edo 'integrista' hobeto esateko. Eta berak ere, batzuetan ez zekien zer egin, abertzaleen kontra inoiz ere ez zen agertu, agiri-agirian behintzat kontra ez zen agertu, baina alde ere ez. Eta gero Errepublikak ere erabili zuen txarto. Bureban egon zen desterratuta, han **Burgos** aldean, eta gero etorri ziren besteok eta, hauek ere bai, lehenengo hor ibili zen hara eta hona eta azkenean bota egin zuten, zeretik, elizbarruti honetatik. Gero **Batikanoan** egon zen eta **Aita Santua** ikusi zuen eta **Franco** onena zela edo esan eta damutu zen gure **Mateo** ere, eta azkenean etorri zen eta, **Zarau-tzen** egon zen, itsututa. Eta honekin jarraituaz, **Olaetxea** han zegoen, zerean, **Iruñean**, hango gotzaia zen **Olaetxea**. Eta **Espainia** guztiko 'primado' edo esaten zaiona, **Toledokoa**, han zegoen, eta handik ez zuen urten

eh! Gero karta bat egin zuten denen artean, **Francoren** 'cruzada' santua zela eta 'cruzada' horren aurrean burua makurtu beharra zegoela, denok, euskaldunak, gailegoak, katalanak, denak. Batzuk, **Barraquer** esa-

'campos de concentración' eta horrela, asko txartoago ibili ziren. Beste herrietako abadeok ere, asko eta asko, banaka batzu izan ezik, zigortuak izan ziren. Abade zahar eta gazte, denak izan ziren **Bizkaian** zi-



terako, ez zuten firmatu, ez zelako gauza ona, eta honi ere, gure **Matteori** esan zioten hauxe eta hauxe firmatzeko, eta berak irakurri zuen, **Aita Santuaren** izenean zela eta... **Tranpa** asko, asko bazterretan!».

— Eta garai hartan **Elizaren** jokaera hori ikusita, zer giro zegoen euskal apaizen artean?

— «Ba, gu beti izan gara independenteak, orduan ere, **Bizkaiko** abade gazteen artean, frentean ibili behar izan genuen, danok, asko ginen gu, ehun eta hoge ta hamar, hortxe inguru, eta gehiago ere. Gero, gu geratu ginen han hamabi gure zigorra betetzen, beste batzu hori ibili ziren

gortuta. Giroa orduan oso badaezpadakoa zen, aginduak goitik heltzen ziren eta egin behar, badaezpada».

"Santoñako paktua italiarrekin egin zen... baina italiarrak maltzurak ziren... maltzurak, bai"

— Hala eta guztiz ere gerradenboran eta gerraondoren ere, hemen, **Euskal Herrian** beti nabaritu izan da apaizak herriaren hurbilago ibili direla beste lekuetan baino gehiago, ezta?

— «*Bai, beti herriaren alde!*».
 — **Francoren** denboran asko izan ziren gartzelaratuak...
 — «*Bai, Francok bazekien hori!, hemengo apaizak eta fraideak nolakoak ziren. Ez dut uste inork esan lezakeenik, egiaz, hemen Euskal Herrian herriarekin haserretuta egon denik. Herriarekin egon dago orain, baina*

"Bilbo galdu genuenean, tirorik botatzeko gogorik ez zegoen... guk amaitu genuen gurea Bilbo utzi genuenean"

goitik aginduak datoz, zintzoegiak izan gara beti, eh!».

— Berriro Gernikaren gaira aldatuz, hasiera batetan kanpoan, nazioartean eta, errepublikaren aldeko giroa nagusia bazen ere, Gernikako bonbardaketa izan ondoren, berria asko zabaldu zen eta gero eta herri gehiago bihurtu zen Errepublikaren aldeko, eragin izugarria izan zuen harako hurak beraz...

— «*Bai, Gernika erretze horrek bai, handia izan zen eragina. Esate baterako ingelesek eta Prantziak laguntasuna eman zuten. Euskal Herria zelan zegoen hemen? Zapalduta. Eta Francok ekarri zituen italiarrak, asko, eta zenbait jausi zen? Gure aldean zenbait hil zen herri bakoitzean? Gero, alemaniarrek etorri ziren, hegazkinak eta ekarrira. Guk ez geneukan hegazkinik, gero, bonbardeo hau, Gernikakoa, eurek egin zuten, italiarrak hortik ibili ziren ere! Gero hau jausi zenean, Ondarru, Markina, hortik, itsas hegaletik etorri ziren. Eta laster agertu ziren Bermeon.*

— Zergatik zabaldu zen hainbeste Gernikarena? Aurretiaz ere Durangon eta beste leku batzutan halako bonbardaketak izan ziren. Gernika sinbolo delako edo?

— «*Bai, Gernika mundu guztian eza-gunagoa zen sinbolo legez, eta gainera, hor esaten ari dira alemanek entsaio bat egin zutela Gernikan.*

— Gero beraiek aplikatzeko...

— «*Horixe. Durangon ere kalte handia egin zuten, baina Gernikakoa askoz handiagoa izan zen.*

— Gernika sinbolo zelako bonbardatu omen zuten, eta hala ere Juntetxea zutik gelditu zen...

— «*Bai, Juntetxea zutik, eta gero,*

Unceta y Compañía, armak egiten zituena, hori ere bai.

— Hain zuzen ere beraien helburua...

— «*Bai, eta zenbait jauntxoren etxeak ere ez zituzten ukitu, behe-beheraino etortzen ziren eta orduan errezagoa zen.*

— **Picassok** bere Gernika pintatu zuenean, Gernikakoa are gehiago zabaldu zen, Koadroa ikusi al duzu?

— «*Ez, koadro bera ez, baina kopia bai, hona ekarri behar zuten. baina hor dago, Madrilan...*».

— **Picasso** ospetsua zelako zabaldu zen hainbeste Gernika koadroa eta haren mezua?

— «*Ez, bonbardeogatik ere bai, Picasso ospetsua zen margotu aurretik. Agirrerren deia zabal bat izan zen eta, orduan, Ingalaterra eta Prantzia esate baterako, italiar eta alemaniarrekin kontuz ibili behar zela konturatu ziren.*

— Aldiz, esku ez hartzeko paktua zela eta, ez zuten uzten hegazkin eta armarik bidaltzea.

— «*Bai, hainbeste bider joan ziren euskaldunak, Parisen egon ziren ere, hegazkinak erosteko asmoz, baina Ingalaterra eta Prantzia ez ziren ondo portatu.*

— Gerra galduta, hainbeste jende hilda edo herbeste-bidetik jo behar duela, zelan gelditzen da euskera eta euskal kultura?

"Aitzolek eman zion euskarari halako zaparrada haundia; gero, asko idatzi zen"

— «*Eragin handia izan zuen honek, Espainian ere jende asko eta asko joan zen, bestela Lorcarri gertatutakoa gerta zitekeen. Alberti eta ere hor ibili ziren, eta euskaldunen artean ere, horrela. Ariztimuño bera, hor jausi ez balitz... Eta Lauaxetak, ez dakit zer sortea izango zuen. Baina giro gogorra zegoen idazteko ere, Gipuzkoan hor hasi ziren euskera debekatzen, bai eleizetan bai kaleetan. Gipuzkoan zigor handiak egon ziren lehenengoetan, emakumeei ilea moztu eta horrela ibili ziren, 'Aceite de ricino' eman eta holako gaiztakeriak! Bizkaian ere asko hil zuten. Larrinagan bertan herri bakoitzetik zazpi hil zituzten hasieran, eskarmentua emateko. Baina euskal*

kulturari hondamendi ikaragarria ekarri zion gerra honek, gerra aurretik hain zuzen ere halako pizkundea izan zen.

— Gerra garaitik haibeste urte igarota, zelan ikusten duzu gaur egun Euskal Herriaren egoera?

"Ariztimuño izan zen gizon jatorra, abertzale zintzo zintzoa eta eragile haundia"

— «*Ba, politikarēn kontuan oso gaizki, batasuna behar dugu eta badakizu zer esaten den, 'banatu eta vencerás'.*

— Gasteizko Gobernua osatzeko hainbeste katramila egon delarik, laster Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena izango denez, **Telesforo Monzonek** hainbestetan aipatzen zuen abertzaleen batasuna iristeko aprobetxatu beharko litzatekeela esan dute HB-ko zenbaitak, zer deritzozu?

— «*Ba, ona iznago zen, euskaldunok izan behar dugu behintzat batasunean sutsuak, eta bakoitzaren eritziak alde batera utzi eta batu.*

— Eta zergatik ez da lortzen batasun hori zure ustez?

— «*Ez dakit ba, lehenengo gerra baino okerragoa da hau, guk elkar hartu gabe horretara, burruka eginez, lehen euki genuen gerra baino gogorragoa da hau. Eta kalte gehiago Euskal Herriarentzat.*

— Herri Batasunak gainerako alderdi abertzaleei dei egin zien eta ez zuten onartu, zergatik?


— «*Bai, ez zuten onartu. Gainera gazteak gogorrek dira. Gure garaian ere gogorrek ziren, bazegoen Yagi-Yagi eta Comunion eta horiek. Beti izan gara euskaldunok eritzi askotakoak.*

— Eta hor jarraitzen dugu, horrenbeste zapalkuntza, torturak, presoak gartzeletan...

— «*Bai, hori, hori... Hor dago Lege Antiterrorista hori ere, eta txarra da hori, hainbeste bortxa..., horretara ez goaz inora.*

— Uste al duzu egunen batetan benetan askatasuna lortuko dugula preso, errefuxiatu eta holakorik izan barik?

— «*Ez da erreza, baina euskalduna langilea izan da beti, ez du amorerik ematen.*



Soka berean.

1 907tik. Bizkaiarrekin batera. Berton bizi eta behar egiten duten guztiekin. Gaur, atzo bezala, zurekin batera. Eguneroko problemetan bat eginda. Beharrizanetan laguntzen. Irtenbide egokiak ematen. Lehenengo eta behin, zu zerbitzeko gaudelako. Eta azkenean ere bai. Horrexegatik egongo gara zurekin batera gero ere. Elkarrekin. Soka berean.



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA





El «Guernica» de Picasso


Conscientes de que nada definitivo diremos sobre tan celeberrimo cuadro, sólo intentaremos llevar al lector una breve aproximación sobre su génesis y avatares. Y para ello es indispensable que nos refiramos al contexto artístico y sociohistórico que abarca nada menos que casi medio siglo.

J.I. Odriozola

La vanguardia novecentista pone de manifiesto el juego de los variables fundamentales: significado y función del arte. Para el estudioso marxista del arte **Valeriano Bozal**, a lo largo de los primeros 40 años del siglo, distinguen dos orientaciones en la vanguardia artística: la construcción de un nuevo lenguaje plástico y la crítica y rechazo de la realidad cotidiana y de la estructura social que la hacía posible. Y esto no sólo en pintura, sino en escultura (**Brancusi**) y en arquitectura. Son años de intensas luchas de clase en Europa en que la nueva intelectualidad no se casa ni con la burguesía ni con el proletariado. No existía una verdadera industria de la cultura, tal como hoy la entendemos con sus posibilidades tecnológicas, que de alguna forma fagocitase el descontento individual de los artistas; tampoco había un mercado que absorbiera y comercializara la obra vanguardista: son los «líricos» tiempos de la bohemia que convertían al «artista» en un desclasado. Sin embargo, ese mercado se estaba creando, pero también se agudizaban las contradicciones de clase, transformándose la vanguardia artística en una vanguardia artístico-política: **Grosz**, **Heartfield**, **Otto Dix**, el constructivismo en la URSS... **Tristan Tzara** jugaba partidas de ajedrez con **Lenin** en el café «*Voltaire*» de Zürich sin tener el gusto de conocerse. Octubre les reencontraría



En la fotografía de la izquierda, primer estado del «Guernica».



A la derecha, la obra acabada.



y el ascenso del fascismo y el nazismo les uniría. Pero no a todos ni toda vanguardia...

Lo que constituye la esencia de la vanguardia es el ánimo de ruptura cultural. Los pintores cubistas, segun

Mario de Micheli a quien seguimos ahora, reprochaban a los pintores del impresionismo —en pleno apogeo de luz y color— ser sólo retina y no cerebro. No se trataba del registro puro y simple de los datos visuales, sino de su organización en una síntesis intelectual que al efectuar una selección destacase los datos esenciales.

En 1908, el crítico de arte **Louis Vauxcelles**, ante una exposición de **Braque**, exclama peyorativamente: «**Braque** maltrata las formas, lo reduce todo —lugares, figuras y casas— a esquemas geométricos, a cubos». La última palabra tuvo éxito y dio nombre al movimiento. El volumen y la estructura fueron las dos primeras preocupaciones de los cubistas. Al eliminar la atmósfera, el gusto sensual por el color y la línea ondulada, trataban de hacer una pintura con rigor potente. Sólo la construcción y la corporeidad de los objetos les interesaba pasando el color a segundo plano. Son los **Deaunay**, **Gleizes**, **Lothe**, **Metzinger**, **J. Villon**, **Juan Gris** y, por encima de todos, **Picasso**, **Braque** y **Léger**. Son los **Shonberg** y **Satié** de la música. Tentativas anteriores de ruptura plástica hubo en el fauvismo de **Matisse** y el expresionismo. Pero, sin duda, fue **Cézanne** el precursor en la búsqueda de un nuevo lenguaje plástico. Al cubismo le cupo el peso de dar el gran salto adelante destruyendo por completo la perspectiva renacentista de los inmensos **B. Alberti** y **Brunelleschi** del Quattrocento.

Necesariamente, al hablar del cubismo tenemos que referirnos a Francia, secular centro de gravedad artístico, donde se difunden las teorías empírico-críticas (**Mach** y las «sensaciones») y fenomenológicas de **Husserl** («visión de la esencia»). **Henri Bergson**, mediocre filósofo, desde la interpretación subjetivista de las leyes de la naturaleza y **Bergson** habla de intuicionismo irracional. En 1913, **Apollinaire**, padre espiritual de los cubistas, escribía: «*La geometría es a las artes plásticas lo que la gramática al arte de escribir*». Alude a la cuarta dimensión cubista: el espacio mismo, la dimensión de lo infinito y la plasticidad de los objetos. El esteta polaco **Polski** demuestra la concomitancia de las experiencias del cubismo y el nacimiento de las investigaciones epistemológicas en matemáticas, lo que

lleva a la conclusión de que el espacio es algo arbitrario, instrumental. **Juan Gris**, cubista, analítico por antonomasia (también hubo cubismo clásico, sintético y órfico), se declara enamorado del pensamiento puro, las matemáticas (los teoremas de **Riemann**, quizá) y la geometría (no euclidiana). La construcción del espacio cubista es un alejamiento del orden de la naturaleza, no hay ningún modelo dado que no sea el ideogenético, el construido. Como vemos, hay una tendencia a la superación subjetiva de la objetividad, pero, a diferencia del expresionista o surrealista, de origen emotivo o psicológico, este subjetivismo es de naturaleza mental. Es claro el riesgo solipsista. Este expolio de la objetividad de sus elementos impuros conducirá al abstraccionismo, pero no el abstraccionismo del primer **Kandinsky** místico, con su «*realidad interior*», sino al rígido, neto y ultrarracionalista de **Mondrian**. **Picasso** supo, llegando al límite, evitar este callejón sin salida de la abstracción. Es más, en 1935 declararía: «*el arte abstracto no existe, siempre hay que partir de algo*».

2.— Picasso = Picasso

La figura de **Pablo Ruiz Picasso** (1881-1973) es clave para entender 50 años de historia figurativa.

A lo ancho y largo de su dilatadísima producción artística, traspasada por diferentes estilos, hay dos elementos que permanecen firmes: su conciencia del mundo objetivo que constituye para él un imán gravitatorio hacia el que encamina sus imágenes; siempre criticó a los que quieren «pintar lo invisible y, por tanto, impintable». El otro elemento es el hombre y su destino. **Picasso** concibe el arte como medio expresivo y no como algo que tenga valor en sí mismo. Cuando llega a París, a sus 20 años, le atraen, más que los impresionistas, la emoción de **Toulouse-Lautrec** y el desgarró de **Van Gogh**. Los pobres y la miseria suburbial, los músicos ambulantes y los niños abandonados, los borrachos y las prostitutas que pinta permanecen a la temática social empapada de humanitarismo de la época azul y rosa (esta última con arlequines, celestinas y saltimbanquis, recuperada pronto pasó a ser una moda asumida por un público burgués compasivo y atemperado con el



consiguiente riesgo de amaneramiento efectista, como le sucediera a **Modigliani**. **Picasso** no quiso seguir por este camino.

El cubismo («una revolución en la percepción», en palabras de John Berger) alumbró a un nuevo pintor. Fue una ruptura por la que pasó de ser un pintor bien dotado a convertirse en un creador. **Picasso** es sobre todo un pintor que domina a la perfección la técnica. Se ha hablado de una contemporaneidad de estilos y un eclecticismo pictórico de **Picasso** que le permitiría no estancarse en ninguno y alcanzar, a la vez, la máxima libertad de estilo e invención: expresionismo, cubismo, clasicismo. El «*Guernica*» sería el resultado de un feliz compendio de estilos, una suma de picassos.

3.— El «Guernica»

Ya sea desde el punto de vista histórico-político o estético, el «*Guernica*» es el cuadro más famoso del siglo XX. Nadie cuestiona esto. Como escribiera **Calvo Serraller**, esta obra, por motivos políticos, fue el símbolo plástico más popular de nuestro siglo. Críticos de arte españoles fascistas, ante la imposibilidad de negar la notoriedad universal del «*Guernica*», tataron de rebajarle su peso específico político evidente «*teorizando*» sobre la «*alegoría del sufrimiento*» y la «*tenebrosidad de la guerra*» (**Camón Aznar**), o de la «*transcendencia de este cuadro por encima de la política*» (**Marrero Suárez**), etc.

Por muy distintas —como es obvio— y contrarias razones, el «*Guernica*» —mural de inequívoca significación antifascista y antibélica— fue motejado de «*perversión estética*» por criterios soviéticos que, por cierto, se vieron en un incómodo aprieto cuando **Picasso** decidió afiliarse al Partido Comunista en 1944, creo, no estoy seguro: «*He venido al comunismo como se va a las fuentes*», dijo.

Como es de sobra conocido, en




fico-iconológicos en teoría de la imagen pasando por la escueta valoración político-artística.

El problema del simbolismo

Una discusión interminable y ya eviterna fue el problema de los simbolismos en el «Guernica». De los primeros comentarios que suscitara el mural —que ya nos apresuramos a decir que es un óleo sobre lienzo de 7'8 x 3'5 metros, eds decir, casi 27 metros cuadrados «panorámicos», al

enero de 1937 el Gobierno de la República española encarga a Picasso la realización de un gran cuadro o mural para el pabellón español de la Exposición Internacional de París que habría de celebrarse el verano de ese año. Creemos que fue el gran cartelista J. Renau quien le comunicó el encargo. En anteriores ocasiones se enviaba a pintores y artistas más convencionales, pero la Guerra Civil impuso ciertas preeminencias. Junto con Picasso estuvieron presentes Juli González —amigo de Picasso—, el magnífico dibujante Alberto, Joan Miró y el escultor norteamericano A. Calder. La invitación no suponía un tema previamente escogido o forzado, de modo que nada se sabe de las intenciones originales del pintor malagueño. Picasso aceptó el encargo, pero el tiempo transcurría sin que se viera estimulado, algo fundamental en él. El 26 de abril de 1937 se produjo el primer bombardeo «moderno» indiscriminado sobre la población civil de la villa de Gernika por la aviación nazi y el beneplácito del general Franco. Parece ser —según el estudio del cuadro Palau i Fabre— que la persona que primero le hizo saber a Picasso la magnitud de aquella masacre, quizá con el «The Times» o el «Ce Soir» bajo el brazo, fue el inolvidable José Bergamín quien, por cierto, escribiera en la revista «Cahiers d'Art» —primer monográfico sobre el «Guernica» de aquel mismo año— un artículo titulado «Picasso furioso». En el tracto de tiempo que va entre la invitación aceptada y la destrucción de Gernika, Picasso proyectó, a modo de historietas, «Sueño y mentira de Franco» donde éste es escarnecido y caricaturizado inmisericordemente; ya allí aparecen caballos y toros (y falsos, cerdos, estandartes, macareñas, etc.).

El «Guernica» ha sido objeto de innumerables «lecturas» que van desde las interpretaciones antropológicas y sociológicas hasta las neopositivistas de los análisis iconográficos



Boceto del puño armado del soldado.

que los vascos tienen que ir a ver si lo desean al Casón del Buen Retiro madrileño, adonde llegó procedente de Nueva York en septiembre de 1981, digo, fue el que hiciera el bilbaino —pero inserto en la cultura castellana— Juan Larrea (por ejemplo, la mujer sollozante con el niño muerto en brazos representa para él Madrid). Para Larrea, los dos personajes ineludibles, el toro y el caballo, son vistos como la encarnación, respectivamente, del pueblo y del fascismo. Sin embargo, R. Arnheim, que analiza meticulosamente los dibujos preparatorios, los interpreta al revés, esto es: el toro encarna la fuerza bruta, el fascismo, y el caballo es la víctima, el pueblo (Palau i Fabre está con la tesis de Larrea, pero la considera descabellada en términos generales; aprovechamos este paréntesis también para decir que en los primeros bocetos del cuadro, el caballo aparece con un gran cuello retorcido y la cabeza semimoribunda rozando casi la parte inferior del cuadro). Para Larrea, la mujer del quinqué —la República— representa la inteligencia que quiere iluminar al pueblo español. Digamos entre corchetes —esta vez— que

la mujer del candil es un trasunto de Dor Maar, un ligue de Picasso que siempre le recibía con un quinqué cuando éste llegaba tarde a casa. Quizá esta anécdota contrastada haga ver un poco la futilidad, puede que estéril, del problema de los símbolos, el propio Picasso llegó a declarar que el caballo era el pueblo para retractarse en posteriores declaraciones diciendo lo contrario. En 1974, quizá entre harto y divertido, declaró que el público interpretara

los símbolos como quisiera. En cualquier caso, lo cierto es que la única figura controvertible es el caballo del que originalmente —en los bocetos— surge un pequeño Pegaso —sus entrañas y que luego despacharía. La lanza que atraviesa el caballo —según Palau i Fabre— clavada por el propio Picasso en un acto exorcismo; sin embargo, en otros cuadros anteriores como «El entierro de Casagemas» (1901) —un amigo suyo que se suicidó por amor o desamor—, el caballo aparece como esplendoroso psicopompo o conductor de almas, mientras que en «Sueño y mentira»... es un caballo risible, achacoso (Franco acabará su apoteosis montado en un cerdo). El toro es una figura —un iconema— recurrente en Picasso (como las mujeres y el mar, las naturalezas muertas, las corridas de toros); en los dibujos preparatorios se autorretrató a veces como Minotauro y no es descartable que el toro del «Guernica» lo represente a él exclusivamente como belvedere que observa el sastrero.

Otras teorías

En un estudio iconográfico-ico

lógico muy reciente hecho por **Santiago Sebastián López**, basado en los métodos de **Erwin Panofsky** y en correspondencia con las formas simbólicas del filósofo **Cassirer**, escribe que **Larrea** relaciona el «*Guernica*» con el «*Juicio Final*» de **Miguel Ángel** y con el «*Naufragio de Me-*



Décimo primer boceto preparado por Picasso.

dusa» de **Géricault**. No lo cree así el autor mencionado y ofrece como modelo inspirador del «*Guernica*» el apocalíptico cuadro de **Rubens** titulado «*Los horrores de la guerra*» que implicara a todas las potencias europeas (la guerra de los 30 años: 1618/48). Se relaciona el toro con **Marte**, dios de la guerra, el soldado caído lo tiene por el arquitecto del cuadro de **Rubens** y, por tanto, no tendría una espada rota en la mano, sino un escoplo; la flor sería la rama de olivo que simboliza la paz; la mujer del quinqué es **Venus** o el Amor; la bombilla eléctrica con tulipa una versión de **Helios** (y no de **Apolo**), etc., etc. Es una —otra— «*lectura*», pero no delirante. Es sabido que **Picasso** estaba muy influenciado por la mitología y vio y estudió las obras de los grandes maestros clásicos de la pintura. También escribió poemas, lo que es poco conocido. Como también se sabe, por sir **Anthony Blunt** (asesor artístico que fuera de la reina de Inglaterra y espía soviético en la se-

gunda guerra mundial, grandísimo esteta fallecido hace muy poco en Bayswater) que **Picasso** conoció y asimiló un código mozárabe del **Beato de Saint Siver**, una miniatura altomedieval donde aparece la cabeza de un soldado ahogado en el Diluvio que es transferida calcada-mete al soldado muerto del «*Guernica*».

De los 45 bocetos (y 8 fotografías sacadas pro **Dora Maar** del proceso del cuadro) que precedieron al «*Guernica*», desde el primero al último aparecen ya el toro, el caballo y la mujer del quinqué. Sólo el caballo, reiteramos, le creó broblemas a **Picasso**, del que hizo incluso un boceto infantil o naíf.

Una «*lectura*» ultimísima del cuadro es el análisis icónico que hace **Justo Villafañe**. Sería prolijo explicar en qué consiste dicho análisis, pero en pocas palabras podemos decir que lo importante para él no es lo que quiso **Picasso** decir al mundo sino cómo lo dijo. Para **Villafañe**, el común denominador de todos los que han estudiado el carácter simbólico del «*Guernica*» —**Larrea**, **Arheim**, **Barr**, **Schneider**,



Dos trabajos sobre la figura del caballo.

John Berger, **Palau i Fabre** y otros—, son contradicciones puestas de manifiesto sobre todo al intentar asignar a cada elemento humano y no humano del mural un referente en la realidad.

En lo que nos interesa, el análisis nos informa de la planitud del «*Guernica*», es decir, sin profundi-



